



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

Tributu nagusien laburpena

Dirubilketa metatua 2020ko martxoan

% 1,5 hazi da Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatua

Martxora bitarteko dirubilketa metatuaren zenbatekoa 385,2 milioi euroraino iritsi da

HITZARTUTAKO ZERGEN GUZTIZKOA (laburpena)

Urtearen lehenengo hiru hilabeteetan, zergabilketa % 1,5 igo da iazko aldi berarekin alderatuz, eta ia 385,2 milioi euro biltzera iritsi da. Beraz, hilabete honetara arte 5,7 milioi euro bildu dira, iazko aldi berarekin alderatuta.

“Emitza horiek COVID-19ren etorrerak eragindako krisiaren aurretik zegoen euskal ekonomiaren argazkia erakusten digute. Martxora arte bildutakoak krisiaren aurretik sortutako zergak biltzen ditu, eta gure ekonomiaren, enpleguaren eta lurraldeko kontsumoaren osasun ona islatzen zuten. Krisiaren ondorioak datorren hilabeteko dirubilketan iristen hasiko dira. Martxoa baino lehen osasun ekonomiko ona izateak krisitik ateratzen lagunduko digulakoan nago”, esan du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak.



ZUZENEKO ZERGAK: +% 12,9

1) PFEZa: 209,2 milioi (% 12,8)

Guztira, PFEZak 2019ko martxoan baino 23,7 milioi gehiago bildu ditu, enplegua hobetzearen ondorioz, bai eta enpresek dibidenduen banaketa handitzearen eta 2013tik prestazioak kobratu zituzten amei eta aitei itzultze dela eta aurreko urtean balio negatiboak zituen zergaren kuota diferentzialaren alde positiboaren ondorioz ere.

Aipatzekoa da lan etekinen gaineko atxikipenek gora egiten jarraitzen dutela; % 6,5 hazkunde metatua, eta hori krisiaren aurretik Arabako enpleguak zuen osasun onaren isla da.

Era berean, Covid-19k eragindako pandemia agertu aurreko aldi honetan ekonomiak izan duen bilakaera positiboaren ondorioz, nabarmen hazi dira ordainketa zatikatu profesionalak eta enpresarialak, hau da, langile autonomoen ekarpena, % 5,6 hazi baitira eta ia 8 milioi euro batu baitituzte guztira.

2) SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA: 13,6 milioi

Sozietateen gaineko zergaren bilketa osoa 13,6 milioi euro izan da, eta aurreko urtearen aldean nabarmen handitu da.

Hazkunde hori batez ere kapital higigarriaren gaineko atxikipenen gorakadari dagokio, enpresek dibidendu gehiago banatu dituztelako eta, neurri txikiagoan, kapital irabazien gaineko atxikipenen igoerari.

ZEHARKAKO ZERGAK: -% 11,9



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

1) BEZa: 111,5 milioi euro (-% 13,5)

BEZaren bilketaren beherakada nabarmen jaitsi da, batez ere, urteko lehenengo hiruhilekoan zerga horren kuoten itzulketen zenbatekoa handitu egin delako.